

zitostatikoak segurtasunez manipulatzea

INFORMAZIO-GIDA



DEFINIZIOAK

Konposatu zitostatikoa: zelula tumoralen hazkunde desordenatua inhibitzeko gai den farmakoa, diseinatua edo prestatua, zelula-dibisioa aldatu eta azkarren ugartzen diren zelulak suntsitzen dituen. Ondorio mutagenikoak, kartzinogenikoak edo teratogenikoak izan ditzake.

Zitostatikoen erabilerak: honako lanak hartzen ditu bere barruan: merkaturaturiko produktuarekin dosi bat prestatzea, hura pazienteari ematea, eginkizun profesionaletan sortzen diren hondakinak biltzea, tratamenduan zitostatikoak erabiltzen dituzten pazienteen gorozkiak eta isurki biologikoak deuseztatzea edo medikamentua ukitu beharrarekin zerikusia duen beste edozein eginkizun burutzea.

Espozizio moderatua: minbizia duen pazientearen zaintzen ari diren langileek eginkizun horretarako antolatua dagoen ospitaleratze-eremuan jasan dezaketena, zitostatikoak manipulatzeko beren lan bakarra ez denean.

Espozizio handia: beren eguneroko lanean droga antitumoralak erabiltzen dituzten langileek jasaten dutena.

JARDUERARI DAGOZKION ARRISKU NAGUSIAK

Zitostatiko guztiek ez dute eragin berbera izaten eta arrisku-maila ere aldatu egiten da farmako-motaren arabera.

ARRISKU KIMIKOA

- Substantzien ezaugarri arriskutsuak ez ezagutzea.
- Identifikatu gabeko substantziak.
- Behar ez bezala edo oso denbora luzean gordetzea.
- Lanerako metodoak eta prozedurak ez ezagutzea.
- Aerosolekin giroa kutsatzea; aerosolak sor daitezke, esate baterako, botika prestatzean, orratza bial batetik kentzean, anpoilak irekitzean, xiringa bateko airea kanporatzean edo erabilitako xiringak deuseztatzean.
- Manipulazio ez egokia.

ZIPRIZTINAK, PROIEKZIOAK.

- Jarioak, isurketak, ziztadak.

EBAKIAK

- Anpoilak haustea.



PREBENTZIOA

INFORMAZIOA

- **Ondo identifikatu produktuak.** Beren sailkapena dela-eta, arrisku berezia izan dezaketenak kontuan hartu: minbizi-sortzaileak, mutagenoak, teratogenoak eta abar.
- Beharrezkoak diren **lan-protokoloak** eskura izan. Eguneratuta mantendu.
- **Prestakuntza-ikastaroetan parte har ezazu.**
- Informazio eguneratua eskuratu ondoko gaiei buruz: produktuen ezaugarriak, beren jarduera biologikoak, toxikotasuna, babeserako ekipoen eta lanerako materialen ezaugarriak.

MANIPULAZIO EGOKIA

- Ahal den lekuetan behintzat **esposizioa ahalik eta gehien gutxitu.**
- **Jarduera hasi aurretik garbitu eskuak.**
- Prestaketa leku bakar batean egin. Leku hori, ahal dela behintzat, ondo eguraturiko eta haize-korronterik gabeko eremu batean egongo da. **Itxi ateak eta leihoak.**
- **Jario laminarra duten II. klaseko segurtasun biologikoko kabinetan lan egin.**
- **Itxi ezazu kabinaren aurrealdea,** eskuak eta besoak sartzeko behar hainbateko tokia bakarrik utziz.
- **Manipulazioa kontu handiz egin** eta gai kutsagarria **airean ez zabaltzeko neurriak hartu.** Horretarako, kontuan hartu ondoko gomendioak:
 - Lan egiten hasi baino **15 edo 30 minutu lehenago kanpaia martxan jarri** behar da, aire-zirkulazioa egonkortu dadin.
 - **Saia zaitetz kanpaiaren mugimendu zakarrik ez egiten,** fluxuaren korronea alda ez dadin. Kanpaiaren alde bakoitzetik zortzi bat zentimetrotara lan egin behar da.
 - Lan egiten hasi aurretik, **prestaketarako beharrezkoa den material guztia** behar bezala antolatuta eduki behar duzu, manipulazioak egiterakoan lan-eremuan sartu-atera ibili beharrik ez izateko.
- Ahal den guztietan, **ekipo seguruak eta egokiak erabil itzazu,** esaterako, Luer-Lock erako ahokadurak dituzten bena-barneko ekipoak eta xiringak, bialiofilizatueterako haizatze-iragazkiak eta abar.
- **Teknika seguruak erabili,** hala nola:
 - Anpoilak ireki aurretik, segurtatu horien goialdean likidorik ez dagoela. Aerosol gutxiago sor daitezten, jar ezazu anpoilaren lepo inguruan gaza bat, manipulatzailaren kontrako norabidean. Era horretan, nahi gabeko medikamentu-zipriztinak eta ebakiak saihestuko dituzu. Burbuilak kendu.
 - Behar bezain handia den xiringa aukeratu, anpoilaren edukia xiringak har dezakeenaren 3/4 baino gehiago ez izateko moduan. Era horretan, medikamentua nahi gabe isurtzea saihestuko duzu. Bena-barneko ekipoak zebatzean kontu handiz jardun.
 - Ez ziztatu bialak behin baino gehiagotan, gainezka ez egiteko aire gutxiago sartu, eta abar.
 - Biala eta orratza beti zutik eduki behar dira betetzen direnean. Era horretan kanpaiaren fluxua isuri egiten da.
 - Zitostatikoaren betealdi bakoitzean, aldatu orratza eta xiringa.
 - Ez bereizi xiringa eta orratza hau bota aurretik, eta ez itzazu orratzak berriz kapsulatu.
 - **Behin bukatuz gero, utzi kabina martxan 15 minutuz** deskontaminazio-neurri gisa.

- **Norbera babesteko ekipoak erabiltzea** gomendatzen dizugu.
 - Eragile zitotoxikoak **prestatu eta ezabatzeko** prozesuetan.
 - Erabili eta botatzeko bata, aurrealdetik itxiak (atzealdetik irekiak), poltsikorik gabekoak, mahuka luze eta eskumutur elastikoekin, ahal bada material iragazgaitz batekin eginak eta lepo itxiarekin.
 - Latexezko eskularruak, hautsik gabe. Ez erabili binilo klorurozko eskularruak, prestakin jakin batzuk iragazi egiten baitira eskularru-mota batzuetan.
 - Bataren eskumuturren azpitik jar itzazu.
 - Maiz xamar alda itzazu; ordu erdiz behin gutxi gorabehera, etengabe eragile zitotoxikoekin lanean ari zarenean, kutsadura gertatu ondoren, hausten direnean eta lan-saio bakoitza amaitu ondoren.
 - Komeni da eskularru bikoitzak erabiltzea, betiere manipulazio-teknika oztopatzen ez bada.
 - **Maskara.** Gomendatzen da arnasbideak babesteko maskarak erabiltzea, aho eta sudurreko egokigailu eta iragazki egokiekin hornituak.
 - **Betaurrekoak.** Ziprztintzeko arriskua dagoenean.
 - Agente zitotoxikoen **emate**-prozesuan ziprztintzeko arriskua egonez gero, erabil itzazu latexezko eskularru bikoitzak eta bata iragazgaitza, maskara eta babeserako betaurrekoak.
 - **Azterketa analitikoak** egin bitartean, erabil itzazu eskularruak eta bata.
 - **Aldez aurretik**, kasu bakoitzean erabili beharreko babeserako ekipoak **ondo kokatu** eta doitu.
 - **Adi egon eskularruen egoerarekin**, zitzadak eta autoinokulazioak saiheste aldera.

BILTEGIRATZE KONTROLATUA

- Lan egiteko behar duzun **gutxieneko stocka prest eduki**.
- **Kontuan har itzazu produktuen arriskugarritasun-ezaugarriak** eta horien bateraezintasunak; antzeko ezaugarriak dituztenak batera jar itzazu eta toxikoak, minbizi-sortzaileak, lehergarriak, kiratsa botatzen dutenak eta abar isolatu edo bakartuta utzi.
- Produktu kimikoak dagokien lekuan utzi biltegian. Ez pilatu produkturik lurrean.
- Substantzia kimikoak dituzten ontziak **zaindu eta ondo daudela egiaztatu. Irekita edo gaizki tapatuta dauden ontziak ez itzazu gorde**.
- Produktuek **etiketa** behar bezala jarrita dutela **egiaztatu**.
- Produktua bere ezaugarri fisiko-kimikoengatik **hozkailu edo izozkailu batean gorde** behar denean, kontserbaziorako argibideak zorrotz bete behar dira.
- **Ez itzazu produktu kimikoak hondakinekin nahasita gorde**, edozein eratakoak izanda ere.
- Ez itzazu produktu kimiko berriak gorde, haien arduradunaren berariazko baimenik gabe.

LANERAKO OHITURA EGOKIAK HARTU

- Ez manipulatu zikostatikorik haurdunaldian, edoskitzaroan, malformazio- edo abortu-historiak izan badituzu, zikostatikoen edo erradiazio ionizatzaileen bidezko aurretiko tratamenduetan, alergiekin, etab. aurretik medikuari galdetu gabe.
- Produktu zitotoxikoak erabili ondoren **garbitu eskuak**.
- Produktu zitotoxikoak erabiltzen ari zarenean, ez ukitu aurpegia eskuekin, ez egin hazkarik, eta abar. Ez ezazu mahaitik urrunduta lan egin.
- Laneko **batak eta jantziak ondo lotuta** eta ilea bilduta eraman beti; ez eraman ezer zintzilik, ezta mahuka zabaleko arroparik ere.
- Zitotoxikoak prestatzen, manipulatzten ari zaren bitartean, **ez erre eta ez jan ezer ere**, ez mastekatu txiklerik, digestio bidez kutsatu ez dadin. Ez erabili kosmetikorik.
- **Ondo babestu zauri** irekiak, horietatik barrena toxikoak errazago sartzen baitira.
- Ez erabili lan-eremutik kanpo kutsatuta egon daitekeen arropa.



BESTE NEURRI BATZUK

- Kontuan izan produktu zitotoxikoak dituzten arriskuak eta errespetatu lankideen lana.
- Kabina **aldian-aldian berrikusten** dutela kontrolatu, haren funtzionamendu egokia bermatzeko: fluxuaren abiadura, kontrol bakteriologikoak, iragazki-sistemak eta abar.
- **Seinaleak jarri eta eremuak mugatu** produktu kimiko arriskutsuekin lan egitea aurreikusten den prozesuetan.
- Egiaztatu **produktuak eta materialak** egoera onean daudela.
- **Gerta litezkeen istripuak eta gorabeherak ezagutu itzazu.** Gerta litekeen edozein gorabeherari aurre egiteko prest egon: dagozkien antidotoak ezagutu eta hondakinak jasotzeko materialak edo ekipiak, deskontaminatzaileak edo gainazalen neutralizatzaileak prest eduki. Ikusteko eta eskuratzeko moduko leku batean jar itzazu eta behar bezala seinalizatu. Hona hemen zenbait adibide:
- **Zipriztinak:** norbera babesteko ekipoa eta/edo arropetan eroriz gero, lehenbailehen kendu eta zikindutako aldea garbitu.
- **Likidoa azalaren eta/mukosen gainean isuriz gero:** berehala **garbitu ur askorekin**, hamar edo hamabost minutuan. Begiak ukituz gero, garbi itzazu berehala ur askorekin hamabost minutuan eta galdetu oftalmologoari.
Zerbait isuriz gero, nahiz eta oso gutxi izan, berehala jaso ezazu. Horretarako, erabil itzazu eskularruak (eskularru bikoitz sendoak eta iragazgaitzak gomendatzen dizkizugu), FPP3 motako maskara autoiragazleak, esposizioa galarazteko betaurrekoak eta oinetako-estalkiak. Hondakinak jasotzeko, alde batetik iragazgaitzak diren zelulosazko zapiak erabil itzazu: isuritako materiala likidoa denean zapi lehorrak erabili, eta solidoa denean, berriz, urez edo neutralizatzailez bustitako zapiak.
- **Orratz batekin ziztatuz gero: kendu eskularrua, garbitu** berehala **ur askorekin eta desinfektatu** ziztatutako aldea.
- **Atmosfera kutsatuz gero:** eremua haizeberritu. Kabinak baldin badituzu, martxan jar itzazu. Itxi ateak kutsadura beste eremu batzuetara zabaldu ez dadin, su har dezaketen gauzak kendu, gelatik atera eta, ahal dela, ez ezazu lurrinik arnastu.
- **Istripua izanez gero, Lan-osasunera jo.**
- Behin tratamenduak amaitu ondoren, atera materiala kabinatik, itxi edukiontzia eta bota itzazu edukiontzira, baita erabilitako bata eta norbera babesteko ekipoa ere.
- Sar itzazu kutsatutako material guztiak (medikamentuen hondakinak eta zitotoxikoekin kontaktuan egon den materiala, isurpenak, jarioak eta abar jasotzeko erabilitako materialak) ontzi estanko eta zulagaitzetan, eta ontzi horien kanpoaldean garbi adierazi hondakin arriskutsuak direla.
- Ez erabili berriro ontziak beste produktu batzuetarako.
- Hondakinak ez pilatu. Abisatu jaso ditzaten.
- %0,01 baino gehiagoan substantzia mutagenikoak, teratogenikoak eta/edo kartzinogenikoak dituzten produktuak ez itzazu estolderia-sarean bota.
- Gaizki dauden ontziak eta iraungitako produktu kimikoak bereizi eta identifikatu.
- **Errespetatu** eremua mugatzeko **seinaleak**.
- **Dena txukun eta garbi eduki.**

